


# enkore

faktore komunak



**Enkore** taldeari beti eskatu ahal izango zaito "beste bat, beste bat...". Enkore taldearen izenak hori esan nahi baitu ingeleraz. Beraz, berriro beste bat Enkore, errepikapenaren errepikapena izango litzateke. Orduan, Enkore karratura. Enkore taldeak termino matematikoak oso gustukoak ditu, euren aurreko lanen izenburuak izen matematikoak baitira. Baita lehen lan luzea ere. Enkore taldea Bilboko Errekalde auzoan gauzatuko dute 2009an. Urte berean lau abestiko EPa argitaratuko dute "Multiplo Komunetako Txikiena" izenburuarekin. 2010ean "Zatikzaile Komunetako Txikiena" bigarren EPa kaleratuko dute eta 2011an "Zer garen" singlea. Hiru lan labur horiek taldeak berak autokudeatutakoak dira. Hiru urte labur bezain bizi eta beteak. Zuzenean jo duten bakoitzean ondorio bikainekin itzuli dira etxera eta batzutan, gainera, sariak irabazita. Hemen sarien zerranda: Gaztea maketa lehiaketa 2010, Bilboko talde berrien lehiaketa, Bizkaia TVko maketa lehiaketa, Banden Lehia 2010, Barakaldoko Pop-Rock 2010 lehiaketa, Leioa Pop-Rock 2011... Meritua dute Enkore taldekoak.

Enkore taldearen lehen lan luzea, "Faktore komunak", Bilboko Beardstudios-etan grabatu, nahastu eta masterizatu dute Borja Murok eta Javi Peñak 2011ko iraila, urria eta azaroan zehar. Diskoaren laguntzetan melodikotasuna bilatu dute ahotsetan. Juanmik (Laia) letrak eta ahotsak sartu ditu "Itsasoaren bestaldean" abestian. Aiora Renteriak (Zea Mays) "Muxurik muxu" abestian kantatu du. Aitor Uriartek (Latzen, Sen, Une) "Hiru akordetan" abestian ahotsa sartu du. Beste guztia euren kabuz atondu dute.

Enkore taldeak "Faktore komunak" izenburua eman dio euren lehen lan luzeari. Melodia eta abiadura. Melodia eta leloak. Melodia eta dantza. Melodia eta punkaren popa. Melodia eta amorrua. Melodia eta rockaren bizitazuna. Melodia eta egunerokotasunaren freskotasun xumea. Melodia kutsakorrentan du oinarri Enkore taldeak. Hardcore melodikoaren alderik indartsuena lelo eta mezueta ageri da. Enkore taldeak eta hardcore melodikoak faktore komunak dituzte. Kantu gazi-goak. Kantuen goxotasuna zorrotzasunarekin lotuta. Enkore taldeak faktore horiekin jokatzeko du abestiak egiteko eta emaitza oso entzungarria egingo zaigu hasieratik. Enkore taldeak armonien mundua gitarren indar biribilarekin musukatzen du.

**Enkore taldeak hainbat musika lehiaketan beste horrenbeste sari lortu ditu. Sariak zer ekarri diote Enkore taldeari? Sarien bideak musika proiektio eta etorkizuna bermatuta uzten dute?**

Ordura arte lortutako sari orok segurtasuna eman dio taldeari. Badakigu lehiaketa hauetan guztietan ez dela objektibotasunez saritzen, baina guri, agian, egiten duguna jendeak gustuko duela erakutsi digu. Sariak ez dute talde baten etorkizuna bermatzen, ezta gutxiago ere; gure ustez, eguneroko lana beharrezkoa da eta baita zeure musikan sinestea.

**Hardcorearen alderik melodikoaren etekina ateratzen bikaina da Enkore taldea. Abiadura eta leloen indarrean dago Enkore taldearen kantuen aberastasuna?**

Egia da, orokorrean, batez ere hardcore melodikoa entzun dugula gaztetan eta, nahi eta nahi ez, horrek eragin handia izan duela gure musikan. Hala ere, ez da kanta bat sortu aurretik pentsatzen dugun kontu bat: ez du zertan abiadurarik egon, mezu bat dugu zabaltzeko eta gaur egun entzuten ditugun musika mota ezberdinak (pop, rock, indie, metal, dance...) erabiliz egiten dugu. Leloen indarra mezuari ematen diogun garrantziaren isla da.

**Matematika terminoak erabiltzea gustuko du Enkore taldeak euren lanetan. Hori da zuen zerga-oinarria?**

Lehenengo EP-a grabatu baino arinago, internet eta sms bidez "maketa" hitza laburtzeko mkt idazten genion elkarri. Horren ondorioz, "Multiplo Komunetako Txikiena" deitu genion eta "ZKH" bigarren EPari, aurrekoaren osagarri ikusten baikenuen. "Faktore Komunak" diskoan taldearen ibilbideko zenbait kanta esanguratsu sartu dugu eta horregatik ildo beretik jarraitu dugu diskoari izena jartzerakoan. Hala ere, ez gara bereziki matematika zaleak; bizitzaz, laguntasunaz, amodioaz, herriaz, sexuaz... mintzo gara, hau da: gure bizitzaren egunerokotasunaz.

**ENKORE:** Xabi Hoo (ahotsa eta gitarra)  
Urtzi Iza (gitarra)  
Eka Portillo (bateria)  
Aitor Gallastegui (baxua eta ahotsa)

